

## 5. araua

### Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

### Kontzeptua

2. artikulua.- Prezio publiko hauek dagokien Erregelamendu arauemailean zehazten diren zerbitzuetarako ezarri dira.

3. artikulua.- Prezio publikoa hileroko osoen bidez ordainduko da, eta hilabetea amaituta, zerbitzuak zein hilabetekoak izan eta hurrengo hilaren lehen hamabostaldian.

### Tarifen aplikazioa

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifa zehazteko, kontuan hartuko dira ondoko artikuluetan zedarritutako kontzeptuak eta Tarifa-eranskinean xedatutakoa.

5. artikulua.- Eranskinean jasotako tarifa-sistema aplikatzeko, Udalak ofizioz egiaztatuko ditu erabiltzaileen datu fiskalak. Datu horiek jasota izan ezean, hileko *per capita* errenta garbia zenbatzeko gastu kengarrien gaineko informazioa emanen zaie erabiltzaileei.

6. artikulua.- Familia-unitatearen definizioa: Prezio publikoa kalkulatzeko, PFEZari buruz indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat.

7. artikulua.- Ahalmen ekonomikoa zehazteko era: Errenta eta gastu kengarriak. Hileko *per capita* errenta garbia zehazteko, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- Errenta: PFEZaren azken aitorten edo likidazioaren zerga-oinarriaren alde orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta salbuetsitako prestazio edo errenten zenbatekoan gehituko da.

- Gastu kengarriak: Kuotan arrazoi pertsonalak medio zerga-arintzeen oinarria osatzeko direnak, honako hauek kasu:

1. Ohiko etxebizitzako gastuak, betiere hileko muga 400 euro dela.

- Ohiko etxebizitzaren, apartamentu babestu publikoaren edo antzekoen alokairua.

- Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren amortizazioa.

- Ohiko etxebizitza moldatu edo zaharberritzeko lanek sortutako gastuak.

2. Nork bere etxean segitu eta bertan laguntza eskuratze aldera kontratatu beharreko langileek sortutako gastua, betiere hileko muga 400 euro dela.

3. Eguneko zentroetan edo geriatriako egoitzetan egoteak sortutako gastuak, betiere hileko muga 400 euro dela.

- Urteko *per capita* errentatzat aurreko kontzeptuen arteko kenketa familia-unitateak dituen kide-kopuruen artean zatitu eta eragiketa horretatik ateratako zenbatekoa joko da. Hileko *per capita* errenta garbia urteko *per capita* errenta hori zati hamabi eginez lortuko da.

- Erabiltzaileek PFEZari buruzko aitopena egin behar ez izatera, haien diru-ahalmena zehazteko, ahalik eta diru-sarrerara eguneratuenak hartuko dira kontuan.

8. artikulua.- Tarifaren oinarritzko unitatea zehazteko era: Tarifaren oinarritzko unitatea zerbitzua ematen benetan egindako ordua da. Oinarritzko unitatearen prezio publikoa tarifa-eranskinean finkatutakoa izanen da.

**TARIFA-ERANSKINA**

<b>INDIZE ZUZENTZAILEA ONDAREAREN ARABERA</b>	
- 30.001 eta 39.000 euro bitarte	hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goiko hurrengo tarte aplikatu zaio.
- 39.001 eta 48.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goiko hurrengo bigarren tarte aplikatu zaio.
- 48.001 eta 57.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goiko hurrengo hirugarren tarte aplikatu zaio.
- 57.001 eta 100.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goiko hurrengo laugarren tarte aplikatu zaio.
- 100.000 eurotik gora:	100.000 eurotik gorako ondarea izanda, oinarrizko unitateari dagokion prezio publikoa aplikatuko zaio.
Ohiko etxebizitzaren balioa ez da kontuan hartuko ondarearen balorazioa egitean.	

<b>BESTELAKO INDIZE ZUZENTZAILEAK</b>
Familia-unitatea bi kidek edo gehiagok osatua izanez gero, 1. eta 3. epigrafeen tarifak % 20 handituko dira.

<b>1.- EPIGRAFEA.- ZUZENENKO PRESTAZIOAK</b>		
Familia-unitatearen diru-sarrerak Hileko Per Capita Errenta Garbia	Hileko lehen 30 orduak	31. ordutik aitzina
Errenta Adierazle Publikoa (EAP) baino gutxiago	3,05 euro. Hileko tarifa finkoa	3,05 euro. Hileko tarifa finkoa
EAPren % 100 eta % 120 bitarte	6,15 euro. Hileko tarifa finkoa	6,15 euro. Hileko tarifa finkoa
EAPren % 120 eta % 140 bitarte	1,50 euro orduko	Tarte bakoitzerako ezarritako prezio publikoaren % 50
EAPren % 140 eta % 160 bitarte	2,55 euro orduko	
EAPren % 160 eta % 180 bitarte	4,10 euro orduko	
EAPren % 180 eta % 200 bitarte	5,65 euro orduko	
EAPren % 200 eta % 220 bitarte	8,75 euro orduko	
EAPren % 220 eta % 240 bitarte	11,80 euro orduko	
EAPren % 240tik gora	15,05 euro orduko	

<b>2. EPIGRAFEA.- BAZKARIA ETA AFARIA PRESTATUEN ZERBITZUA</b>		
Familia-unitatearen diru-sarrerak Hileko Per Capita Errenta Garbia	Bazkaria	Afaria
Errenta Adierazle Publikoa (EAP) baino gutxiago	1,50 euro	1,00 euro
EAPren % 100 eta % 120 bitarte	2,55 euro	1,50 euro
EAPren % 120 eta % 140 bitarte	3,05 euro	2,55 euro
EAPren % 140 eta % 160 bitarte	4,10 euro	3,05 euro
EAPren % 160 eta % 180 bitarte	4,60 euro	3,60 euro
EAPren % 180 eta % 200 bitarte	5,65 euro	4,10 euro
EAPren % 200 eta % 220 bitarte	6,15 euro	4,60 euro
EAPren % 220 eta % 240 bitarte	7,20 euro	5,15 euro
EAPren % 240tik gora	7,70 euro	5,65 euro

<b>3. EPIGRAFEA.- ARROPA GARBITU ETA LISATZEKO ZERBITZUA</b>	
Familia-unitatearen diru-sarrerak Hileko Per Capita Errenta Garbia	Hileko tarifa
Errenta Adierazle Publikoa (EAP) baino gutxiago	3,05 euro
EAPren % 100 eta % 120 bitarte	6,15 euro
EAPren % 120 eta % 140 bitarte	6,65 euro
EAPren % 140 eta % 160 bitarte	13,35 euro
EAPren % 160 eta % 180 bitarte	19,55 euro
EAPren % 180 eta % 200 bitarte	26,75 euro
EAPren % 200 eta % 220 bitarte	40,15 euro
EAPren % 220 eta % 240 bitarte	53,55 euro
EAPren % 240tik gora	66,95 euro